

noaua



"GUREAN, BASERRITAR KULTURA EZIN DA ULERTU ERRIORIK GABE"

Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdapilletaren 'Errio' dokumentala eskainiko dute igande honetan Aginagan / 18-19 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

650 Usurbil Bizi-k 'Errioaren Usurbil' ildoak sustatuko du 2025. urtean / 08




NOAUA

Jendetza elkartu zen Usurbilgo San Tomas azokan / 12



NOAUA

Eusko Jaurlaritzak Ezkeltzuko parke eolikoaren egitasmoa geldiarazi du / 15



NOAUA

Olentzero eta Mari Domingi gure artean izango dira datorren astean / 22

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

Zorionak eta urte berri on!

943 530 337
607 119 313

- gremioen koordinaketa ·berritze lanak
- sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

NAGORE URDAPILLETA

ERRIO

BARRATIK MAPILERA

Sustatzailerak eta babesleak: **ORIO**, **GIPUZKOA**, **NOUVA**, **ELIZA ZAHARRA**, **ANTXO MOLAN TXA**, **Usurbilgo Udala**

Emanaldiaren antolatzaileak: **ELIZA ZAHARRA**

Emanaldiaren laguntzaileak: **Usurbilgo Udala**

ERRIO BARRATIK MAPILERA EMANALDIA
ondoren SOLASALDIA

Nagore Urdanpileta protagonista
Ibon Gaztañazpi zuzendaria
Xabier Agote Albalako zuzendaria
Xabier Alberdi historialaria
Lourdes Odriozola historialaria

Noiz: Abenduak 22, Igandea, 17:30

Non: Eliza Zaharra Elkargunea

Sarrera: DOAN gonbidapenarekin
usurbilkultura.eus-en

Errege opilak bere sekretua du

Gabonak gainean ditugu eta jende asko gabonetan zer prestatu pentsatzen ariko da. Azken aldian, geroz eta gehiago dira errege opila erosi beharrean etxean egin nahi dutenak, eta hori egiten ikas-teko ikastaroa izan zuten larunbat goizean Txokoargin.

Opila egiteko orea

Idoia Artuzamunoaren gidaritzapean, lau pertsona elkartu ziren mahaiaren inguruan eta orea zapaldu eta bueltakemanda lortu zuten euren bizitzetako lehen errege opila egitea.



Errege opila egiteko tailerrean orea lantzen hiru lagun, Idoia Artuzamunoaren esanetara.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Abenduaren 19tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 26an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

Hurrengo astekaria urtarrilaren 10ean plazaratuko dugu

Datozen bi asteotan, abenduaren 27an eta urtarrilaren 3an, ez da argitalpenik izango. Hurrengo astekaria, urtarrilaren 10ean argitaratuko dugu. Ordurako oharrik baduzue, ohiko bideotatik helarazi, hilaren 3a baino lehen: erredakzioa@noaua.eus 943 360 321

Andoni DJ, urte berria estreinatzeko

Urte berria musika eta dantza giroan hasteko aukera izango dute gautxoriek oraingoan ere. Gauerdiko kanpai eta suziri hotsen ostetik, frontoian festa giroa nagusiko da Usurbilgo Udalaren eskutik; aurtengoan, Andoni DJ-rekin. Goizaldeko 1:00ak aldera hasiko du saioa.

Sareko zozketaren zenbaki sarituak

Egunotan errifak saltzen ibili dira Sareko kideak eta hauek izan dira zenbaki sarituak.

- 1. saria: 13.018 zenbakia. 999 euroko bi bidaiabonua.
- 2. saria: 40.456 zenbakia. 999 euroko bidaiabonua bat.
- 3. saria: 34.624 zenbakia. Arbizuko kanpinetako jatetxean bi lagunentzako otordua.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aitaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Festak eta ispiluak

Orioko festetan ibili nintzen duela aste pare bat. Eguraldiak baldintzatutako egunak izan ziren, haizete eta euri-jasa oldakorrek zirela medio, moldaketak gauzatu behar izan ziren egitarauan. Baina hala ere, lagunartean eta beste modu batera ospatzeko aukera izan zen.

Festak, gizarte eta herri bizitzaren erakusle zuzenak direnaren sinismena dut oraindik. Herrigune txiki bateko ikuspuntua daramat soinean eta agian horrexegatik izango da. Gurean, auzolan eta elkartasunik gabe, aurrera eramaten ditugun ekintza asko gauzatzea ezinezkoa izango lirerateke. Beharrezkoa dugu elkarrekin hitz egin, elkarren beharrak kontuan izan, ardurak banatu eta laguntza eskatu eta eskaintzen jakitea.

Moduren batean edo bestean, festak badira azken urteari atzera begiratu eta errepasoa egiteko aitzakia bat. Ikasturte eta urte amaieraz gain, beste so batekin erabili litekeen neur-gailu mota bat, nolabait.

Aurtengoan adibidez, Orion, Gazteen Ahotsa izeneko talde bat sortu omen da. Ustez, azkenaldiko festen egitarau edo kutsuarekin bat ez datozen, eta aniztasun gehiago aldarrikatzen duten gaztetxoak batu dira. Talde berri honen sorrera pozgarria da hein batean, gazte berriak antolatu eta euren proposamenak herriratze-



"Onerako zein txarrerako, gizarteari begiratzeko erakusleihu apartak dira festak".

ko dinamika eta espazioetan parte-hartzeko hastapena izan daitekeelako. Belaunaldi berriak, euren bidea urratzen hastekoa, nolabait.

Sareetan zabaldu dutenaren arabera, gazteen proposamen ezberdinak jaso ostean, festa batzordeko antolakuntza bileretara eraman nahi izan dituzte. Eta antza, aurtengoz, reggetoia jartzen duen DJ-ren bat proposatzera mugatu omen da euren aldarria. Aurrerago ikusi beharko da, elkarrekin batzeko arrazoi gehiago ba ote dituzten.

Lehen sintoma atzean utzita baina, gertakari garrantzitsu eta larri bat gertatu zen San Nikolasetan. Izan ere, herri

"FESTAK BADIRA AZKEN URTEARI ATZERA BEGIRATU ETA ERREPASOA EGITEKO AITZAKIA"

mugimenduko pertsona baten aurkako eraso bat salatu zen Herri Bazkarian zehar. Eta beraz, abenduaren 8an, igandez, kontzentrazio baterako deia egin zuen mugimendu feministak.

Komunikatuan azpimarratzen zen ez zela gertakari isolatu bat izan. Pertsona honekiko jazarpena lehenagotik omen zetorren, eta erasotzaileek inpunitate osoz jarduten omen zuten, azken gertakari honen ostean publikoki esku hartzea erabaki zelarik.

Bigarren sintomari erreparaturuz, badirudi, arrazoi anitzetan oinarritzen den indarkeriari aurre egiteko lan ugari dugula oraindik. Baina honen aurrean are nabarmenagoa da, herriak edozein erasoren aurrean irmoki erantzun dezan geroz eta ozenago salatuko direla gertakariok. Onerako zein txarrerako, gizarteari begiratzeko erakusleihu edo ispilu apartak dira festak.

Boluntariotzari buruzko prestakuntza saioa

Abenduaren 27rako antolatu du ASEBIER gaixotasun arraroen elkarteak, 11:00-14:00 artean Potxoenean. Boluntarioak izan nahi dutenei nahiz boluntariotzan interesa dutenei zuzenduriko saioa izango da. Izena doan eman ahalko da, info@asebier.org helbidean edo <https://forms.gle/Yofm38vQ8NLkkMvb7> helbideko galdetegia osatuta.

Gabonetako etenaren ondoren, urtarrilean goizez zabalduko dute KzGunea

Urte amaierako oporraldia tarteko, abenduaren 24tik urtarriaren 7ra arte itxita egongo da KzGunea.

Urtarrilak 7-20

- Orduategia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Oinarritzko Inter-neta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".

Urtarrilak 21

- Orduategia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Google Translate".

Urtarrilak 22-24

- Orduategia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Zure bidaia planifikatu".

Urtarrilak 27-31

- Orduategia: 9:00-11:00.
- Ikastaroa: "Mekanografia".

Informazio gehiagorako:

943 023 684
tutor.usurbil@kzguea.net



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.

2024ko kultur uzta, Sutegiko erakusketa gelan ikusgai

Urtarrilaren 7ra bitarte egongo da erakusketa ikusgai. Bertan, Usurbilgo artistek argitara emandako lanak topatuko dituzue.

Literatura

Lamiak eta emagina (Denonartean)

Ixabel Agirresarobe-Mattin.

Etxe bat norberarena (Alberdania)

Yolanda Arrieta.

Gutunak birramamari (Denonartean)

Yolanda Arrieta-Concetta Probanza.

Xurde (NOAUA)

Ainara Azpiazu Aduriz, 'Axi'.

Artxibo biluzia (Metrokoadroka)

JM Torrealdai bekan saritua.

Mikroipuinak (Elkar)

Idoia Torregarai-Zaldieroa.

Bestelako argitalpenak

'La censura gubernativa y el libro vasco' (Jakin)

Juan Mari Torrealdai.

'Zumetaren Usurbil' katalogoa.

Ilargia eta landareak (Argia)

Jakoba Errekondo-Olariaga.



Argazkian duzue 2024ko uzta. Delirium Tremensen azken CDA falta da.

Kosmetikoak sendabelarrekin (Argia)

Garbiñe Larrea-Ibai Arrieta.

Musika

- Ameba, 'Munduari'. CD.
- Zaparra, 'Azal berritzen'. CD.
- Delirium Tremens, '...ta nora?'. CD (Haritz Harreguy usurbildarra da taldeko gitarrajolea).

Ikusentzunezkoak

'Usurbil'58', DVD-USB.
NOAUA! Kultur Elkarteak.

Oharrak

Lan hauek eskuragarri dituzue Laurok eta Lizardi liburudendetan, Aitzagan edota Sutegi udal liburutegian.



Piano ikasleak kontzertua eskaini zuten Zumarteko ganbaran. ARGAZKIA: ZUMARTE M.E.



Argazkian, piano entzunaldiko protagonista nagusiak. ARGAZKIA: ZUMARTE M.E.

Zumarteko ikasleen urte amaierako kontzertuak

Ikasturtea hasi zenetik hona ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten pianoko ikasleek. Zumarte Musika Eskolak 40.

urtemuga ospatzeari ekin dio eta urte bukaerarako lau emanaldi iragarri ditu. Aurreko ostiralekoa izan zen lehena.

Zumarteko ganbaran, ikasleen gurasoak eta senitartekoak bertaratu ziren.

Beste bi emanaldi falta dira

Kantu giroan agurtuko dute Zumarte Musika Eskolakideek amaitzear dugun urtea.

Abenduak 18, asteazkena

• 10:00 Belaunaldiarteko gahonetako emanaldia Zumarte Musika Eskolako ganbaran.

Abenduak 19, osteguna

• 18:00 Biolin taldekoen gabonetako entzunaldia, Zumarte Musika Eskolako ganbaran



Elkarguneko eragileetako ordezkariak, NOAUA!ri eskaintako elkarrizketa uanean.

"Etenik ez egoteko, gaurtik hasi behar dugu Elkargunea eraikitzen"

ELKARGUNEA AZTARRIKA, GAZTELEKUA, ZIORTZA, KULTURGUNEA

"Gero bat gaurdanik: Elkargunea eraikitzen" topaketak antolatu dituzte Elkarguneko eragileek abenduaren 20tik 26ra. Eragileotako ordezkariak elkarrizketatu ditu NOAUA!-k.

Zergatik eta zertarako antolatu dituzue Elkarguneko eragileok ostiralean bertan abiatuko diren topaketok?

Aurreko ikasturtean, prozesu luze baten ondoren, Elkargunearen proiektua definitu genuen eta orain beste pauso batzuk eman behar dira, bide publikoa hartu behar du. Denbora beharko du anbulatorio ondoko zelaian kokatuko den proiektua gauzatzeko eta tarte horretan zehar, garrantzitsua ikusten genuen ulertzea sustatu nahi dugun elkarlan hori gaurtik abiatu daitekeela. Egingo den eraikina tresna bezala ulertzen dugu, ez helburu bezala eta, beraz, gero

hori gaurdanik marrazten hasi nahi genuen.

Bide hori elkarrekin jorratzen hasiak zaudete aspaldidanik. Lazekin zenioten lankidetzari honi?

Duela bi ikasturte hasi ginen lau eragileok genituen behar horiek asetzeko tresna berri bat formulatzen, Elkargunea izango zen hori alegia. Hasierako txosten bat osatu zen. Bertan, eragile guztien beharrik definitu ziren eta udal talde desberdinei aurkeztu zitzaizkien. Elhuyarrek elkarlanean aritu gara azken urtean etorkizuneko egitasmo horri forma ematen, eginiko parte hartze prozesuaren bidez.

Topaketok horren guztiaren erakuseleho izan nahi dute ezta?

Helburua da, Elkargunearen eraikina egin bitarte, ez egotea eragile bakoitza bere aldetik. Ez gaude eraikinaren zain, bestela ere elkartu nahi dugu eta ekintza ezberdinak egin denok batera. Topaketok no-

"EZ GAUDE ERAIKINAREN ZAIN, BESTELA ERE ELKARTU NAHI DUGU ETA EKINTZA EZBERDINAK EGIN"

labait dira partekatzen ditugun helburu horien emaitzetako bat. Alde batetik, eragile ezberdinek izen propioz beren ekintzak txertatuko dituzten ekintzak daude, hasieratik eragile desberdinen artean garatu diren ekintza partekatutak, Elkargunetik kanpoko eragile batzuekin elkarlanean bideratuko direnak... Maila ezberdinetako elkarlana sustatu da; Elkargune barneko eragileen artekoa, eragile bakoitzak sustaturikoa, kanpo eragileen artekoa... Eskerrik asko parte hartu duten eragileei, denak bertakoak dira. Aldi berean, topaketon hartzaileak eragile guztietako parte hartzaile guztiak izango dira eta horrez gain, Usurbilgo herria, etorkizuneko Elkarguneak izan nahi duen moduan. Sortu nahi dugun subjektua ez da eragileen arteko koordinazio gunea baizik eta izaera propioa izango duena. Zabaltzen goaz, norbanako ezberdinak proiektuaren parte izateko gonbidatuko ditugu hurrengo hilabeteotan.

Nortzuei zuzendurikoak dira topaketa hauek?

Ekintza batzuk irekiak eta parte hartzaileak izango diren arren, helburu nagusia, bereziki, gure arteko elkarlana indartzea izango da. Hain zuzen, aurreko ikasturteko parte hartze prozesuaz geroztik, ez da egon eragile guztiok prozesu bat ematen jarraitzen dugunaren irudi hori. Honek ere badu bigarren funtzio hori; orain arte egindako lan guztia azalera herriari eta batez ere aurrera jarraituko duela hautematea. Eraikina prest izan arte, lanean jarraituko dugula ikustea. Etenik ez egoteko, gaurtik hasi behar dugu Elkargunea eraikitzen.

Zer dakarte topaketa hauek?

Abenduaren 20an hasiko dira topaketak, urtero egiten dugun Ziortzaren San Tomas jaialdiarekin. Elkarlan honetan sartu nahi izan dugu ekimena.



Elkarguneko kideek, egitasmoaren kokalekua aurkezteko urte hasieran eginiko agerraldia.

→ Dinamika batzuk egin eta gero, denok batera musikaz eta txistorra pintxoekin gozatu dugu. Abenduaren 23an, Usurbil 1936 memoria elkarteak egindako lan izugarria gazteriarengana helarazi asmo dugu, bisita gidatu batekin. Arratsaldean, Aztarririk izango dugu. Iaz, hasi zen antolatzen gazte asanblada gabonetako kontsumo ereduaz zalan-tzan jartzeko. Iazko gazte topaketak logika horretan etorri ziren. Aurten, arropa eta liburuak bildu nahi ditugu bereziki. Azoka egunean, iaz bezala, utzi ahalko da hartu gabe, hartu ahalko da utzi gabe, bigarren bizitza ematea da helburua.

Segidan, hasiera ofiziala emango diegu topaketei Sutegiko erakustaretoan. Erakusketa irekiko dugu. Bertan, eragile bakoitzak postutxoia izango du. Eragile horren historia, zer egiten dugun, erronkak, helburuak... azalduko dira, ahalik eta modurik didaktikoenean. Lau postu izango dira, eragile bakoitzarentzat bat. Bosgarren postua, Elkarguneara izango da. Irekiera ekitaldi horretan, gure indar, ilusio eta gogo hori azaldu nahi dugu, ziur aski, hurrengo

urteetan Usurbilen egongo den proiektu anbiziotsuenerako baten islada izango delako. Jendea bertara gonbidatu nahi dugu.

Abenduaren 24an, Usurbilgo talogileek taloak nola egingo diren erakustaldia egingo dute, talde dinamika aurkeztu eta talogileen taldean sartzeko gonbita egingo dute. Ziortzaren eta Aztarririkaren arteko elkarlan gisa irudikatzen da, gazteei zuzendua egongo da. Baserritarrez jantzita etorri goizean goizetik, musika egongo da, jolasak, taloak egin eta jateko aukera. Eguna hasteko aukera polita. Arratsaldean, iaz bezala, Aztarririk antolatu dugu, kantu-jira gazte eta ez hain gazteentzako. Aurten bereziki bilakatu nahi izan dugu Palestinako genozidioa gogorarazteko une gisa. Kalezkale ibiliko gara kantuan,

"ABENDUAREN 23KO IREKIERA EKITALDIAN, GURE INDAR, ILUSIO ETA GOGO HORI AZALDU NAHI DUGU"

trikitilariekin, kitararekin eta liburuxkarekin. Horra ere baserritarrez jantzita etorri.

Amaitzeko, abenduaren 26an, erakusketa azken egunez irekiko dugu. Arratsaldean, bi ekintza izango ditugu; batetik, sormen tailerrak Kulturgunearen eskutik Ziortzako eta Gaztelekuko gazteentzat. Gero, solasaldi musikatuia izango da Anuk eta Elenerekin. Amaitzeko merendola bat izango dugu denok batera. Arratsaldea hasteko, ordea, Usurbilgo lehen Etxebizitza Asanblada Herriarra egingo dugu Txirikordan. Diagnosi orokor bat bada gazteen artean eta maila instituzionalean, etxebizitza larrialdi egoera batean bizi gara. Gaia herrira ekartzeko une egokia ikusten genuen gabonetan. Helburua, herri gisa, etorkizuneko Usurbilek zer nolako etxebizitza panorama

"ZER NOLAKO ETXEBIZITZA PANORAMA IZATEA NAHI GENUKEEN EZTABAIDATUKO DUGU"

izatea nahi genukeen eztabaidatzea da. Parte hartze espazioak izango dira, errealitatea partekatzea helburu izango dutenak. Ondorioz, etxebizitza problematika bustitzen duen orori zuzendua egongo da. Herri mailako deialdia izatea nahi genuke.

"Gero bat gaurdanik: Elkargunea eraikitzen"

Abenduak 20, ostirala
18:00-21:00 Ziortzako San Tomas jaialdia.

Abenduak 23, astelehena
12:00 Usurbilgo Memoria: ibilbide gidatua Usurbil 1936 elkarteko eskutik, Mikel Laboa plazatik.

17:30-20:00 Aztarririk frontoian: Aztarririkaren bigarren eskuko truke-azoka. Bilketa: abenduaren 19an eta 20an, 17:30-19:30, Sutegin.

18:00-20:00 Elkarguneko eragileen erakusketa irekiera Sutegiko erakustaretoan.

20:00 Gabonetako topaketen irekiera ekitaldia Sutegiko aterpean.

Abenduak 24, asteartea
Goizetik, baserritar jantziekin.
11:00 Talogintza ikastaroa Usurbilgo talogileekin frontoian.

11:30-14:00 Elkarguneko eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.

17:00 Aztarririk: Palestinaren aldeko kantujira frontoitik.

Abenduak 26, osteguna
11:30-14:00 Elkarguneko eragileen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.

17:00 Txirikorda: Usurbilgo lehen Etxebizitza Asanblada Herriarra (Txirikorda eta Aztarrিকা).

17:30 Sormen tailerra (Kulturgunea, Gaztelekua, Ziortza): antzerkia (Jontxu Martinez) eta eskulangintza (EITI), Anuk eta Elene solasaldi musikatuia. **Amaieran**, merendola.

Antolatzaileak: Kulturgunea, Ziortza, Aztarrিকা, Gaztelekua.



Udalak eta NOAUA!k, 650 Usurbil Bizi proiektuaren bultzatzaileek, 2024 urteko balantzearen berri eman zuten aurreko astean.

Bisitarien kopuruak gora egin zuen 2024an

605 lagunek ezagutu dute Usurbil 2024an, 650 Usurbil Bizi-k eskainitako bisita gidatuen bidez. Pozik azaldu dira lortutako emaitzekin, "baita hilabeteotan herriko zein kanpoko eragileekin izandako elkarlanekin, horien bidez, bisita gidatu berriak sortu baitira".

2024an, bisita gidatuen eskaintza berri egin da. 'Usurbil Museo Irekia' bisitaren kasuan, bestelako eskaintzarekin osatu dute zenbait kasutan: Zumeta Arte Estudioa ezagutzeko aukera eskaini da batzuetan, Chillida Leku deskubritzeko aukera besteetan. 'Zumetaren Usurbil' erakusketa ere bisitaren parte izan da beste hainbatetan.

Horrez gain, bisita gidatu berriak abiatu dira 2024an. Batetik, Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldiaz gozatu ahal izan dute bisitariak.

Bestetik, 'Gerraren memoria' ibilbidea osatu eta eskaini da.

Usurbilgo Sagardoaren Kultura ezagutzeko modua ere egon da, eta 'Zaintzaren Usurbil' eta 'Zero Zabor Usurbil' ildoek lotutakoak ere jarri dira martxan.

Zumetarekin hasi zen dena
650 Usurbil Bizi proiektuaren hastapena Jose Luis Zumetaren Usurbilgo muralaren 50. urteurrenak markatu zuen, batik bat. "Zumeta Arte Estudioarekin elkarlan estua

izan da, bi urtez gutxienez", eta hala izaten jarraitzeko oinarriak ere adostuta dituztela adierazi zuen Agurtzane Solaberrieta alkateak. Aurten, 'Zumetaren Usurbil' erakus-

**"AURRERA BEGIRA,
TXALAPARTAREN
INGURUKO
ESKAINITZA OSO
BAT DISEINATU
NAHI DA"**

keta egin da, eta urteurrenari lotutako ekintzen amaiera gisa, "Usurbilgo Udalak Zumetaren 'Usurbilgo lehoia' koadroa erosi zuen". Potxoneko Urdintxo gelan duzue ikusgai.

Aplikazioa, martxan

2024an '650 Usurbil Bizi' app-a garatu da, Android zein iOS telefonoetarako, Elhuyarrek eta Baturarekin elkarlanean. Ines Garcia 650 Usurbil Bizi ekimeneko dinamizatzaileraren esanetan, "horri esker, edonork egin dezake bisita gidatua, gida baten beharrik gabe, telefonoaren laguntzarekin".

2023an baino bisitari gehiago

2024an, 50 bisita gidatu egin dira, eta horien bidez 605 lagunek ezagutu dute Usurbil, indibidualki (379 lagun, 35 bisitatan) edo taldean (226 lagun, 15 bisitatan). Eskaini eta egin ez diren bisita gidatuak ere egon dira: bost izan dira, zehazki. Hala ere, 2023ko datuekin konparatuta, bada alderik: bisita kopuru gehiago, baina bisitari gutxiago izan ziren 2023an (479 lagun, 59 bisita gidatu).

2024ko bisitak, zenbakitan

Bisita gidatuak: 50.
Bisitariak guztira: 605.

Bisitarien jatorria:

Gipuzkoa	83%
Alemania	7,5%
Bizkaia	7%
Nafarroa	2%
Cantabria	0,5%

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

txirriStra
-PLATER KONBINATUAK
-BOKATAK -PINTXOAK
TABERNA
Kontzeju zaharra, 13 **Tel 943 36 04 66**



Udalak uztailean erosi zuen Zumetaren 'Usurbilgo Lehoia'. Bisita gidatuen katalogora batuko da.

'Errioaren Usurbil' izango da 2025eko lan ildo nagusia

150.000 euroko inbertsioa aurreikusi du udalak. Baimena eskuratutakoan, lur sail bat erosi eta ontziraileku bat eraikiko du.

Gaur egun, Oriari bizkar emanda bizi den herri bat da Usurbil. Baina ez da beti horrela izan. 2025ean, errioaren balioa aldarrikatu nahi da, eta ez bakarrik hitzez. 650 Usurbil Bizi egitasmoak proiektu bat du eskuartean eta 2025ean jarri nahi du martxan.

Iratxe Begiristain tokiko garapen arloko udal zinegotziak xehetasun batzuk eskaini zituen aurreko asteko agerraldian.

• Bat: Erriorako sarbide publikoa ahalbidetuko da.

• Bi: Aisialdia, natura eta kultur ondarearen transmisioa uztartuko dituen eskaintza osatu nahi da.

Aginagarrekin elkarlanean

Bi helburu hauek gauzatzeko lehen urratsak eman ditu Udalak. Albaola Itsas Kultur Faktoriarekin eta Begibistan enprekin harremanetan jarri da. Horrekin batera, Aginagako elkarteekin kontaktuan da, elkarlanean osatu nahi dutelako errioari lotutako eskaintza.

Helburuak zehazteaz gain, ekintza zehatzak ere iragarri ditu Udalak.

Ontziraileku bat Aginagan

Ontziraileku bat jarri nahi dute Aginagan, "eta hori egin ahal izateko lanak hasiak ditugu dagoeneko, Kosta Agintaritzari eta URA Agentziari baimena eskatzetik hasita".

150.000 euroko inbertsioa

Baimena eskuratutakoan, lur-saila erosi eta ontzirailekua eraikitzen hasteko moduan legoke udala. "150.000 euro inguruko inbertsioa egitea aurreikusi du Udalak", Iratxe

"AGINAGAN ONTZIRAILEKU BAT JARTZEKO BAIMENA ESKATU DU UDALAK"

Begiristainek aditzera eman zuenez.

"Sagardoa ere bada gure herriaren nortasun ikur"

Berritasun gehiago ere izango dira 2025. urtean, eta berritasun horietako batzuk sagardogintzari lotuta egongo dira, Iratxe Begiristainek aurreratu zuenez, "elkarlana areagotuko da Sagardoaren Unibertsitatearekin. Urtero egin ohi dituzten bertso ibilaldiak 650 Usurbil Biziren eskaintzan sartuko ditugu eta sagar jotzea gertutik ezagutzeko bisita antolatuko da".

Txotx garaian ere, sagardoaren bueltako bisita gehiago eskaintzea da 650 Usurbil Bizi egitasmoaren kudeatzaileen intentzioa. "Errioa zein sagardoa, gure herriaren nortasun ikur dira, eta duten balioa aitortu ez ezik, horiek bizitzeko aukera eman nahi dugu", nabarmendu zuen Iratxe Begiristainek.

Museo Irekiaren eskaintza artelan gehiagorekin osatuko da

Turismo eskaintza berritzeko bokazioarekin, Potxoenea udal-ekipamenduan dauden beste hiru artelan gehituko dira 'Usurbil Museo Irekia' bisitara, datorren urtetik aurrera: Jose Luis Zumetaren 'Usurbilgo Lehoia' margolana, Juan Gorritiren 'Txalaparta eskultura' eta Alejandro Tapiaren 'Txo-kaldea gauez' koadroa.

'Errio' dokumentalaren proiektzioa

Herri honek errioarekin duten harremanean sakontzeko, abenduaren 22an 'Errio' dokumentala emango da Aginagako Eliza Zaharrean, 17:30ean.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiarenea 6, Usurbil.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



Abenduaren 13an, errebote jokoari buruzko informazio-panel bat aurkeztu zuten Zubietan.

"Plazera izan da proiektu hau aurrera atera ahal izatea"

Zubietako Eskolan errebote jokoari buruzko informazio-panel bat diseinatu dute. "Panela egitea azken xedea izan arren, bidean asko ikasi dugu", ikasleek azaldu dutenez.

Zubietako Eskolako irakasleek eta ikasleek mimo handiz diseinatu dute errebote jokoaren inguruko informazio-gunea. "Asko ikasi dugu eta plazera izan da proiektu hau aurrera atera ahal izatea". Hitz hauekin hasi zuten proiektuaren aurkezpen

ekitaldia. Egitasmoa aurrera ateratzeko garaian, instituzioen laguntza izan dutela azaldu zuten: "Usurbil eta Donostia-ko udalen eta Zubietako Herri Batzarraren babesa jaso dugu eta aintzat hartu gaituzte. Horregatik, mila esker denei".

Zubietako errebote plaza-hurbiltzen diren guztientzat, jakingarria izango da informazio-aula. Baina bisitariarentzat bezain interesgarria izan da Zubietako eskolako kideentzat: "Orain badakigu 'kantalaria' ez dela kontzertuetan abesten duena bakarrik, eta 'arraia' ez dela itsasoan egoten den animalia bat bakarrik".

"ERREBOTE JOKOA AHUL DAGO KIROL MAILAN. GUZTION ARDURA DA BERAU INDARTZEA"

"Ez genuen errebote jokoari buruzko ezagutza askorik"

Ikasleak eurak izan ziren informazio-taularen xehetasunak azaldu zituztenak. "Guk, Zubietako Eskolan, proiektu-egitea egiten dugu lan eta aurren 'Errebote plaza' izeneko egitasmoari ekin diogu. Betichean ezagutzen genuen Errebote plaza baina ez genuen bere inguruko informaziorik". Erronka honi gogoz ekin ziotela aitortu zuten. "Panela egitea azken xedea izan arren, bidean asko ikasi dugu".

Informazio iturri ezberdinak baliatu dituzte egitasmoa burutzeko garaian: "Zubietako liburu historikoetan eta Interneten bila hasi ginen. Horrez gain, jende aditua gonbidatu genuen eskolara: Ugaitz Rezola, Josune Iparra-girre eta Ibon Zaldúa". Xabier Arregiren ekarpena ere nabarmendu zuten.

"Espero dugu jendeak ere gustuko izatea"

"Panela guk geuk diseinatu dugu eta horretarako hainbat proposamen egin genituen gelan". Batzuk eta besteak aztertu ondoren, "egokiena hautatu genuen eta espero dugu jendeak ere gustuko izatea".

Aurreko asteko aurkezpen ekitaldian erakutsi zutena eredu modukoa izango da, eta eredu horri segika eraiki-koto dute panel definitiboa.



Aurkezpenaren amaieran, jende ugari hurbildu zen panel informatibora.



Eneko Goia eta Agurtzane Solaberrieta bertaratu ziren ekitaldira.



Perli eta Koxkolo udal liburutegian izan ziren aurreko astean. UDAL LIBURUTEGIA.



Peru Galbetek eta Yolanda Arrietak 'Etxe bat' ikuskizuna eskaini zuten.

Ekitaldi ugari udal liburutegian

Abenduaren 11n, Perli eta Koxkolo pailazoak udal liburutegian izan ziren. Hurbildu zirenek munduan barrena bidaiatzeko aukera izan zuten, irlaz irla, abenturaz abentura, dantza, kanta, kontu eta jolas.

Abenduaren 13an, Yolanda Arrietak eta Peru Galbetek 'Etxe bat norberarena' ikuskizuna eskaini zuten udal liburutegian. Yolandaren izen bereko liburitik hautatutako pasarte batzuk eskaini zituzten. Tartean,

primizia moduko bat ere bai, Peru Galbetek gustuko duen pieza poetiko bat.

Abenduak 23, astelehena

- 11:30 Roald Dahlen "Sorginak" liburua mintzagai (11 urtetik gorakoentzat).
- Zehaztasunak: "Irakurle, seguru asko oso pertsona serio eta formalza zara eta ez duzu sorginengan sinesten. 'Utikan, asmazio horiek!', esaten duzu serio asko. Bada,

sentitzen dugu esan beharra, baina egon badaude. Irakurri besterik ez duzu, bestela, Roald Dahl-en liburu hunkigarri hau: berehala pasatuko zara zure irribarre ironiko horretatik sorpresara, eta sorpresatik gorputz guztia dardarizoka jarriko dizun trantze urdurira".

Saio honetan parte hartu nahi dutenentzat liburuak eskuragarri udal liburutegian bertan.



USURBIL 58 Dokumentala

Altxor txiki bat, opari handi bat

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filmtategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

Dokumentala, salgai

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".
- Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".

NOAUA!ko bulegoan, **Lizardi** eta **Laurok** liburudendetan salgai.

Prezioa: 10 euro.

*NOAUAko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.

San Tomas azokak jende ugari erakarri zuen

Jendetza ibili zen igande eguerdian Usurbilgo frontoian. Sagardo eta babarrun lehiaketetan, Pili Arroyo eta Juan Karlos Balerdi nagusitu ziren, hurrenez hurren.

Denetarik salmenta postuekin bete zen frontoia. Elikagaiei lotutakoak ziren ia gehienak, baina artisau batzuk ere bertaratu ziren. Gozogintzakoetan sortu ziren ilara handienak.

San Tomas azokak baditu klasikoak diren beste elementu batzuk: taloak eta gaztain erreak. Eta ez zuten hutsik egin. Iaz bezala, Ostolaza eta Pujana trikitilariak girotu zuten azoka eta Ixabel Agirresarobe aritu zen aurkezle lanetan.

Aginagako saskiaren zozketa
Aginagako eskolako kideek postu bat ipini zuten eta saltzen zuten produktu bakoitzeko txartel bat banatu zuten. Bezeroak bere izena ipini behar zuten txartelean eta kutxatxo batean sartu. Txartel guztien artean zozketa egin zuten eta Oroitz Altuna izan zen saskia etxeratu zuena.

Hala ere, sagardo zein babarrun ekoizleak izaten dira San Tomas azokako protagonista



San Tomas azokan bazen zer ikusi, zer dastatu eta zer erosi.

nagusiak. Izarpe etxeko Juan Karlos Balerdik irabazi du aurtengo babarrun lehiaketa (iaz ere, bera izan zen garailea). Sagardo onena aldiz, Pili Arroyo zubietarrarena izan zen.

Izarpe etxea.
2. Pili Arroyo, Zugasti baserria.
3. Antonio Izagirre, Aldapa baserria.

Sari banaketa

Babarrun lehiaketa

1. Juan Karlos Balerdi,

Sagardo lehiaketa

1. Pili Arroyo, Zugasti baserria.
2. Mikel Errekondo, Ibindos baserria.
3. Koldo Lertxundi.



Sagardo lehiaketan Pili Arroyo nagusitu zen (Zugasti baserria, Zubieta).



Babarrun lehiaketan, Juan Karlos Balerdik eraman zuen txapela.



Aginagako Eskolaren zozketan, Oroitz Altunaren txartela izan zen saritua.



Jende asko pilatu zen Udarregiko ikasleen postuaren alde banatan.



Haira Rivero publizitate arduraduna, NOAUA!ren mahaitxoan.



Usurbilgo talogileak goizean goizetik hasi ziren lanean.



Lehiara aurkeztutako sagardoa dastatzeko aukera egon zen.



Bitxiak saldu zituen bikotea, postua jarri berritan.



Egurrez egindako etxetresnak saltzen dituen gizona, adarra jotzen.



Ostolaza eta Pujana trikitilariak, azoka alaitzen.




Epaimahaiko kideak sagardoa dastatzen.



Babarrun lehiaketako epaimahaia, indabak aztertzen.



Maria Jesus Etxeberria herritarrak argazki postua jarri zuen.



Haurrek ere entretenimendua izan zuten tailerretan.

Santuenea gabon giro betean da

Gabonetako azoka antolatu zuten aurreko astean Santueneko frontoian eta ekitaldi gehiago ere iragarri dituzte abenduaren 24ra bitarte.

Abenduak 21, larunbata

- 18:30 San Tomas Eguneko ospakizunaren baitan, txistorra banaketa.

- Santuenea Kultur Elkarteko bazkideen artean otarrak zozkatuko dituzte eta umeen artean, txerritxoaren zozketa.

Santuenea 12ko egoitzan egi-no dira bi zozketak.

- DJ Gorka Mendik girotuko du San Tomas eguna.

Abenduak 23, 27, 30

- 11:00-13:00 Irristaketa ikastaroa frontoian eta eskubaloi pistan. Beharrezko materiala: kaskoa, babesgarriak (esku-mutur eta ukalondoetarako eta betaurrekoak) eta patinak.

- Prezioak: haur eta gaztetxoek 15 euro (Santuenea Kultur

Elkarteko bazkideek 5 euro) eta 25 euro 18 urtetik gorakoek (10 euro Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek).

- Informazio gehiago jasotzeko eta izen-ematea: 621 095 644 /santueneake@gmail.com

Abenduak 24, asteartea

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.



Valentziara laguntza bidaltzeko postu berezia jarri zuten auzotarrek.



Gabonetan mahaia gozoz betetzeko aukera.



Etxean egindako artisauro produktuak jarri zituzten azoka sarreran.



Nuria Culla taularatu zen azokaren erdian jarri duten oholtzan.



Ezkeltzuko zati bat Usurbilgo lurretan da. Eusko Jaurlaritzaren ebazpen batek bertan behera utzi du egitasmoa. AIURRI.

Parke eolikorik ez momentuz, Ezkeltzun

2022ko otsailean jakin zen Ezkeltzun parke eolikoa eraikitzeke zegoen asmoa. Hortik aurrera, ibilbide bat egin du gaiak, baina badirudi, momentuz, proiektuak ez duela aurrera egingo. Hala jakinarazi dio behintzat, Eusko Jaurlaritzak Usurbilgo Udalari, pasa den azaroaren 19an kaleraturiko ebazpen baten bidez.

“Espedientea iraungitza eta amaitutzat jotzea” ebatzi du Eusko Jaurlaritzak, “jarduketak artxibatu” egingo direla iragaritzearekin batera. Ondorioz, “indarririk gabe uztea” erabaki du Jaurlaritzak “2022ko apirilaren 4ko ebazpena, lehia-prozedura ebazten duena”. Hala ere, aipatu erakundetik ohartarazi moduan, “ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen eta bere aurka Gora Jotzeko Errekurtsoa jar daiteke”.

Ibilbide gorabeheratsua

Aipatu moduan, 2022ko otsailean izan genuen egitasmo honen berri. Green Capital Development enpresak urte hartako urtarrilaren 24an “aurretiazko administrazio-baimena” eskatu zuen Ezkeltzun parke eolikoa eraikitzeke. Handik bi hilabete pasatxora, apirilaren 4an, aipatu enpresaren

aurreproiektua aukeratu zuen Jaurlaritzak eta “sei hilabeteko epea jarri zitzaion”, beharrezko agiriak aurkezteko. Hala, maiatzaren 30ean, Green Capital enpresak parke eoliko horren “ingurumen-inpaktuaren irismenari buruzko dokumentua lantzeko” eskatu zuen. Agiri hori ebatzi zuen Jaurlaritzak irailaren 12an. Handik gutxira, irailaren 28an, aipatu enpresak egitasmo horren “aurretiazko administrazio-baimena eskatzeko epea” luzatzea galdegin zuen. Jaurlaritzak epealdi hori 2023ko urtarrilaren 12ra arte luzatzea erabaki zuen. Epealdi hau ixtear zela, urtarrilaren 11n, “besteak beste, oinarrizko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu zituen” baina handik gutxira, urtarrilaren 17an, horren izapidetzea “aldi baterako geldiaraztea eskatu

zuen; aire-segurtasunarekiko balizko interferentziak hauteman zituztela eta”, horren inguruan Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziak bere iritzia eman arte gutxienez.

Otsailaren 20an, epealdia eta luzapen aldia agortuta, “nahitaezko dokumentazioa bere osotasunean aurkeztu ez zenez”, dokumentazio hori aurkeztega galdegin zitzaion Green Capital enpresari. Handik gutxira, martxoaren 2an, enpresak “konpromisoa hartu zuen hegazti-faunaren eta kiroroptero-faunaren urteko jarrai-

200 METROKO LAU AEROSORGAILU ERAIKITZEKO ASMOA ZUTEN EZKELTZUN

pen-kanpainaren nahitaezko txostena aurkezteko”, beranduenez, iazko maiatza amaierarako.

Urtebetez horren berririk izan ez ostean, aurtengo ekainean berretsi zion aipatu enpresak Gipuzkoako Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritzari txosten hau helarazteko konpromisoa, ekainaren 18an aurkeztu zuen. Handik hiru egunera eskatu zitzaion enpresa horrek “berrabiarazi zezala administrazio-baimena, alde zuzenetik jakinaraziz, errekerimendua bete gabe hiru hilabete igaro ondoren, prozedura iraungitza joko zuela, eta bere eskaera atzera egingadotzat joko zuela”. Urriaren 31ra arteko epealdia jarri zion Eusko Jaurlaritzak horretarako. Baina denbora tarte hori ez zuen bete Green Capitalek. Ondorioz, “emandako epeak gainditu direnez, espedientea berrabiarazteko eskatu gabe, iraungitza jo behar da”.

Honenbeste, gaurkoz, Ezkeltzun parke eoliko eraikitzeke egitasmoak ez du aurrera egingo.

Kalteen ohartarazpena

200 metroko lau aerosorgailu eraiki asmo zituzten Ezkeltzun. Horrek ekar zitzakeen kalteez ohartarazi eta egitasmoa gerarazteko sortu zuten Andatza-Ezkeltzu Bizirik herri plataforma. “Lur mugimendu ikaragarriak ekarriko lituzke ekimenak, porlana eta pista zabalak gure mendietan, beste kalte larrien artean”. Bioaniztasuna arriskuan jarriko lukeela zioten, tokiko abeltzaintza ere kaltetuko lukeela. Horrez gain, errota hauek “kilometrotara zabaltzen dituzten infrauhinak sortzen dituzte”, epeluzeraz baita gaitasunen eragile izan daitezkeena aipatu plataformatik ohartarazi zuten. Parke eolikoak galbidean jar zezakeen, gainera, tokiko memoria historikoa, 1936ko gerraren Saseta Defentsa Sistemaren baitan kokatua baita gaitasun zonaldea.



Javier Nogueira entrenatzailea eta Pascual Vicente herritarra, ECCMAX-eko entrenamendu saio batean.

"Indarra sentitu, zeureganatu, hori da hemen egiten dena"

JAVIER NOGUEIRA ETA PASCUAL VICENTE AGINAGAKO ECCMAX-EKO ENTRENATZAILEA ETA ERABILTZAILEA

Aginagan laugarren denboraldi betean den ECCMAX entrenamendu guneko dinamikaren berri eman dio NOAUA!ri bertako arduradunak eta herrikide den erabiltzaileetako batek.

Nola eta zertarako sortu zen espazio hau?

Javier Nogueira: Lan muskularrari lotutako ezinegon handi batetik. Indar handia erabiltzen den mundutik, arte martzialenetik, lehiaketetatik, muturreko indarraren mugak arakatzetik nator. Erronka da indarra ahal bezainbeste lantzea lesio arriskurik gabe.

Idea hori nola islatu duzu egitasmo honetan?

Kasualitatez izan zen. Lehian, errendimendu altuan dabiltzanak datoz, baina hel naiteke pertsona guztiengana. Izan ere, garun-paralisia dutenak,

iktusa, hernia diskala... patologia ezberdinak dituzten pertsonak entrenatzen dute hemen. Bizi-kalitatea hobetzen dute indarraren bidez.

Leku desberdina da zuena. Zer bereizgarri ditu?

Hau ez da ohiko gimnasioa, ezta klinika ere, tarteko zerbait. Hemen ez dugu grabitatearekin, halterekin, pisu libreekin lan egiten. Sortu dudana makineria grabitate gabekoa da, muskulu-zuntzak ahal bezainbat aktibatzen. Mila modu daude indarra ulertzeko. Indarra ez da kiloak altxatzea, sentitzea, zeureganatzea bai-

zik. Hori da hemen egiten dena. Hemen beti pertsonak laguntzen dira, edozelan datozela ere. Elkar entzuten dugu eta denok denengandik ikasten dugu. Osasuna hobetzea bada zure erronka, kirolaria izanda errendimendu maila hobetzea

"INDARRAREN LABORATEGI GISA DEFINITZEN DUGU GUNE HAU, IKERTZEN ARI BAIKARA"

edo tarteko zerbait, hemen astean behin entrenatzen da soilik.

Aipatu moduan, baliabideak zuk egindakoak dira.

Neronek fabrikatutakoak. Espresuki daude eginak indarra nahi dudana moduan lantzeko, bestela proiektu hau ez litzateke bideragarria izango. Lan metodologia berri bat da. Egiten duguna da, guztiz pertsonalizatu. Edozein datorrela ere, gai izan behar dugu entrenatzeko, bere bizi-kalitatea hobetzeko.

Bizpahiru urte daramazue Aginagan.

Laugarren denboraldia da honako hau zabalik.

Orain arteko bidez zer balantze egin dezakezue?

Metodo hain berritzailea izanda, kasuistika behar da. Indar laborategi gisa definitzen dugu gune hau, ikertzen ari baikara. Neurologoekin, unibertsitatekin elkarlanean gabilta, azterketak egingo dituzte. Interesa badago. Nahikoa kasuistika izanda, ezagutzera eman behar da orain, metodo bat baita laguntzera datorrena. Dagoen eskaintza osatzera dator. Oinarrian, indarraren erabilera dago eta hortik aurrera, norberak zer behar duen ikustea, kirol aldetik, osasun aldetik.

Pascual, zu nolatan heldu zinen hona?

Pascual Vicente: Nire entrenatzailearen bidez. Buruko isuria izan nuen. Ondorioz, gorputzaren alde bat paralizatu zitzaidan. Hizketan, oinez ibiltzeari utzi nion. Hasieran, mota guztietako profesional askotatik igarotzen zara. Bakoitzak bere funtzioa betetzen du, baina nire ustez, bada une bat pertsonataz ahazten direnak. Protokoloa bera da edozein pertsonarentzat. Horregatik, nigan zerbait falta zela sentitzen nuen. Entrenatzaileak hona ekarri ninduen.



Pascual Vicente herrikidea, Aginagako Eccmax entrenamendu gunean.

—> Hasieratik gehien gustatu zitzaidana izan zen, Javi eta biok eseri eta norberak eskaini zezakeen horretatik abiatuta, elkarrekin betetzen joan beharreko libreta huts bat nintzela adierazi zidala. Tokia isila da, ez dago musikarik. Ez da epaitzen, zatozen modu horretatik abiatzen da lanke-ta; haserrea baretuz, tristeziari irribarre eginez, unea bakoitzean dagoena onartuta. Ontasuna eta umiltasuna aurkitu dut hemen. Berriz irribarre egiten, adorea izaten, desorekari beldurra galtzen lagundu zidan. Ikasi nuen garrantzitsuena ez zela funtzionatzen ez zuen hanka edo beso hori, gorputzaren beste zati oso bat zegoela bazebilena eta indarrarekin. Hemen, gure indarra behar dugunerako nola erabili irakasten digu Javik. Lehen, 24 orduz dardarka egoten nintzen, orain geldirik egoteko gai naiz, zuzen ibil naiteke eta etxean euskarrik gabe, hitz egin dezaket, aurpegira begiratu. Indarra dut. Sinestezina da konturatzea zure eguneroko bizitzan indarra egoki erabiltzen ari zaren edo ez. Galdetzen didanari esaten diot, ni orain indepen-

dentea naizela nere dependentzian. Ez naiz denbora gehien daramadana hemen, baina ziurta dezaket bilakera izugarria izan dudala. Badakit hainbat gauza ezin ditudala egin, baina lehen egiten ez nituen beste hainbat gauza asko bai.

Laguntza eskatu eta jasotzeko modua, zer nola eraldatu da zure ibilbidean?

Polita da laguntza eskatzea baina zuk zure aldetik jarri behar duzu. Zailtasunak dardanean, ez da ezer gertatzen esan ordez *eta zer?* esan eta kudeatu, ez zaio garrantzia gehiago ematen. Bestalde, laguntza eskaintzen didatenean, ezin badut zerbait egin, beste modu batean saiatuko naiz eta ezin badut lagundu beharko didazue. Hemen ika-

"GALDETZEN DIDANARI ESATEN DIOT, INDEPENDENTEA NAIZELA NEURE DEPENDENTZIAN"

si dut Donostiara logopedarengana bakarrik joaten. Ezin badut laguntza eskatzen dut, beti dago norbait laguntzeko prest. Lehen ezetz esaten nuen baina orain estres handia eragingo didan egoerarik bada, laguntza eskatzen dut. Garrantzitsua da umila izan eta laguntza eskatzen jakitea.

Zeintzuk dira zure erronkak?

Orain grinatsu nabil indarrarekin. Kamioia mugituko dut eta maratonia egingo dut, egingo ditudan nire bi erronkak dira. Bikoteak liburu bat idazteko esana dit, niretzat besterik gabe. Izenburua badu; neska bati eguneko segundu kopurua tatuatuak ikusi nizekion eta horixe hautatu dut. Bizitzako segundu bakoitza bizitzeko filosofia hemen ikasi dut.

"POLITA DA LAGUNTZA ESKATZEA, BAINA ZUK ZURE ALDETIK JARRI BEHAR DUZU"

"Zure begiradaren arabera izango da guztia"

Pascualek liburu zuri horretan zer idatzi nahiko lukeen galdetu diogu. "Gutako bakoitza orrialde txuridun liburua garel eta guk erabakitzen dugula nola bete gure orrialde txuriak", erantzun digu. Argi dio, "beti pentsatu izan dut, buruko eta gorputzeko minaz hitz egin nahiko nukeela, baina egunez egun jabetzen naiz ezetz, ez dudala hitz egin nahi minaz, bizi dugun segundu bakoitzaz baizik". Bizimoduaz aritu nahi du. "Zuk erabakitzen duzu nola ikusten duzun. Noski, bizitzan une eta gertakari asko daude, baina halere, zure begiradaren arabera izango da guztia". Baina horretarako, ezinbestekotzat jotzen du ikasia duguna desikastea, berriz ikasteko. "Politena da desikastea, ikasteko. Hori, desikasi gabe ezin da lortu. Desikastea lortzen baduzu, irribarre egin ahal duzu bai".

"Zorte handia dut"

Egun, "nire bizimodu polita da. Zorte handia dut". Horregatik, bere esanetan, "laburbildu beharko banu nire liburua, batzuetan pentsatu izan dudan moduan, txuriz utziko nuke eta esango nuke zuk bete, zure bizitza baita".



Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdapilleta, 'Errio' dokumentaleko egileetako bi. ARGAZKIA: EITB

"Itsas kulturak eta baserri kulturak bat egiten duten lekua da"

IBON GAZTAÑAZPI 'ERRIO' DOKUMENTALEKO ZUZENDARIA

Aginagan maite dute Oriá ibaiaren pasabidea, errioa, hemen esaten diogun bezala. Hainbat altxor eta istorio ezkututzen dituzte haren urek eta erriberetako lur zein basoek. Haren sekretuez gehiago jakiteko aukera izango dugu Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdapilletaren dokumentalarekin.

"Errio" dokumentala eskainiko duzue Aginagako Eliza Zaharrean abenduaren 22an, 17:30ean hasita, eta solasaldia ere egingo duzue. Labur-labur, zer kontatu duzue dokumentalean?

Orioko errioan, Oriotik Mapil baserrira bitarteko ibilbide horretan, Orioko barratik Mapilera bidean egindako ibilbidean geldialdiak egingo ditugu eta leku horietan alderdi demografiko, historiko eta kulturean dauden datu aipagarrienak azalduko dizkizuegu.

Gure ustez aipagarrienak direnak behintzat. Itsas ondarearen lauzpabost zertzelada jaso ditugu dokumentalean.

Hitza bera ere, errioa, gurean eta Orion baino ez da erabiltzen. Badirudi identitate propioa duela.

Hitza bera gure bazterretatik kanpo oso gutxi erabiltzen dela esango nuke. Itzulpenak egiterako garaian, gaztelaniara nik neuk egin dut, baina ingelesera eta frantsesera ere itzuli dute. Nola definitu? Ez da "ría" eta ez da "río". Ingelese bada hitza, "estuary" izenekoa. Hitza oso partikularra da. Itsasoko ura eta ibai-koak bat egiten duten tokia da, itsas kulturak eta baserri kulturak bat egiten duten lekua. Bada topagunearen sinbolo edo. Guk errio esaten dugunean, hitza latinetik hartu dugu edo gaztelaniazko "ría"tik,

baina ezin dugu konparatu Galizako Rías Baixas kontzeptu horrekin. Ibaia ez da eta itsasoa ez, baina aldi berean, ibaia da eta itsasoa ere bai.

Nola eta zertan irudikatu behar ditugu gure arbasoak duela ehunka urte? Euren bizimoduan zein eragin izan zezakeen errioak?

"GIZONAK BALEAK HARRAPATZERA JOATEAN, HERRI ARDURADUNAK EMAKUMEAK ZIREN"

Altxerriko kobazuloetan zibilizazioa hasi zenetik eta gaur arte, kultura oso bat sortu den lekua izan da errioa. Orioren fama itsasoari lotuta dago, baina nabarmen errioari lotutako baserriar kultura bat garatu da arkitektura arloan, komunikazioan, basogintzan, elikaduran... kultura oso bat. Honek, besteak beste, zer utzi digu? Errioan gora eginda baserriari lotutako kultura bat. Gipuzkoan badago baserriar kultura garatua, baina mendiari eta basoari lotutakoa. Gurea ezin da ulertu errio eta itsasorik gabe. Tesi hori baieztatzen da dokumentalean. Baserriar haiek errioari eta itsasoari bizkarrik eman gabe bizi ziren, eta adibideak mila izan daitezke: ontziolak, angula arrantza, izokin arrantza... erakusleak ugari dira.

Emakumez badakigu zerbait? Antzinako dokumentu askotan badirudi emakumerik izan ere ez zela.

Dokumentala oriotarren ikuspegitik egin dugu, nahiz eta gero aurrera jarraituta Aginagan ere sartuko garen. Oriotarrak baleak arrantzatzeraz joaten zirenean, herriko martxaren arduradunak emakumeak ziren goitik behera. Baserriak emakumeek gobernatzen zituzten, zalantzarik gabe. Hala ere, hori betikoa da. Historia gizonek eta gizonentzat idatzi dute. Emakumeen papera beti albo batera utzi nahi izan da. Gu saiatu gara, neurri handi batean behintzat, emakumeen zereginak eta azaltzen eta balioan jartzen. Emakume arraunlariak ere izan dira, eta hori agertuko da dokumentalean. Fokua horretan jartzen saiatu gara eta esango nuke neurri batean lortu dugula hori erakustea.

Oraindik ere badaude garai horren aztarnak gure inguruan?

Badaude, bai, baina ikusten jakin behar da. Orion Marrota baserriar pasata, Ortzaika inguruan errota bat zegoen,



'Errio' dokumentala Aginagan eskainiko dute abenduaren 22an, 17:30ean, Eliza Zaharrean. ARGAZKIA: JABIER ZABAETA.

eta toponimia hori hor dago. Marrota Orioko marea errota izenetik dator. Ontzien hilerri bat ere bada, baina jakin egin behar non dagoen. Ortzaiak hori nondik dator? Ostrak egiten zirelako garai batean. Itzao baserria, XVII. mendean, gariaren iraultza etorri zenean, errioiari irabazitako lur horietan Ameriketatik ekarritako artoa landatzen zuten. Ikusgai daude horiek denak, baina ikusten jakin behar da eta historia pixka bat ezagutu. Andatzako basoan ere haritzekin ontziak egiten zituzten, eta hori ikus daiteke, baina azalpena behar du. Hori egiten saiatu gara.

Non aurkitu duzue dokumentala egiteko informazioa? Asko idatzi zuten gaiari buruz?

Ikerketa lan baten emaitza da. Proiektu honetan sartu nintzenez, Xabi Agote eta Xabi Alberdiri deitu nien. Gai honetan lanean aritutakoak dira biak, eta gure proiektua bideratu ahal izateko giltzarriak haiek emango zizkigutelakoan nengoen. Horretatik abiatuta, gauza pila bat aurkitu ditugu. Zorionez, historiako orrietan jasota dago asko gure errioiari buruz. Kontu askorekin erabat harrিতuta

geratu gara. Zenbat gauza nola izan ote ziren posible... ikaragarria. Beraz, dokumentuak irakurri bai, baina bertako jendearekin ere asko hitz egin dugu. Gure aita zenak joan zen urtean esan zigun bazekiela balearen hezurak zeudela leku batean. Halako mila datu aurkitu ditugu leku batean zein bestean. Hala ere, guk aukeraketa bat egin behar izan dugu eta gai nagusi batzuk hautatu eta ardatz hartu ditugu. Ez genuen datu bilketa huts bat egin nahi, eta kontu asko kanpoan utzi behar izan ditugu. Hautatu dugun horrekin errioiaren historiaren islada bat egitea lortu dugula esango nuke. Hurbilketa bat egin dugu norbaitek gehiago jakin nahi badu hari mutur batzuei tiratzeko aukera izan dezan. Hemen dauden azpigi horietako bakoitzarekin erreportaje bat edo tesi oso

"EZ GENUEN DATU BILKETA HUTS BAT EGIN NAHI; KONTU ASKO KANPOAN UTZI BEHAR IZAN DITUGU"

bat egin daiteke: angula arrantza, errota, ontzien hilerriarekin, astileroarekin, balea arrantzaleen testamentuekin, Altxerriko kobazuloekin edo kortsarioen istorioekin... Pista batzuk eman nahi izan ditugu. Azken finean, ordubeteko saio batek ez du askoz gehiagorako ematen.

Lan gogorra izan da proiektua?

Oso gustura aritu naiz dokumentalean lanean, baina onartu beharra daukat proiektuan sartu izanaz behin baino gehiagotan damutu naizela prozesuan zehar. Ardura ikaragarria sentitzen nuen, eta ez nintzen inor sentitzen errioiari buruzko historia kontatzeko eta zer den garrantzitsua edo ez erabakitzeke. Emaitzarekin, ordea, oso gustura nago eta iruditzen zait guk ez dugula jakin transmititzen arbasoen jakituria hori. Garrantzitsua da jakitea

"AGINAGA GURE PARTE DA, ERRIOAREN PARTE DA, ETA LOTU EGITEN GAITU"

bakoitzak beretik non bizi garen. Horri buelta emateko saiakera bat izan da hau.

Dokumentala Orion estreinatu zenuten irailaren amaieran. Oriotarrei zer iruditu zitzaizkien?

Gu harrিতuta geratu ginen jendearen harrerarekin. Ikaragarri gustatu zaio jendeari. Ea aginagarrei zer iruditzen zaien. Gu ere harrিতuta geratu ginen egin bitartean. Horrenbeste gauza aurkitu ditugu ezer ere ez genekienean. Orion hori lortu genuen nabarmen. Jendeak oso zintzo hitz egin digu eta feedback txarrik ia ez dugu izan. Durangoko azokan izan ginenean ere berdin; jendea erabat harrিতuta. Oriotik aterata ez genekien zein erantzun emango ziguten, baina gustatu zitzaizkien hangoei ere. Orain Aginagara joatea tokatzen zaigu eta oso gustura gaude horrekin. Aginaga gure parte da, errioiaren parte da, eta lotu egiten gaitu.

Non ikus dezake Eliza Zaharrean joan ezin duen batek?

Dokumental hau urtebete edo pare bat urtera publiko egingo dugu, baina orain asmoa jaialdietara eramatea da. Beraz, hori egin ahal izateko, orain momentuan ezin da inon eskuratu. Lehen asmoa oriotarrei erakustea zen, eta behin hori eginda inguruan mugitu eta jaialdietara eramatea. Aginagarrak segituan jarri ziren gurekin harremanetan interes bereziarekin. Hortaz, orain dokumentala mugitze fasean gaude eta inguruko herritan interesa badute haietara ere eramango dugu, edo Euskal Herriko edozein txokotara. Bestalde, zinema jaialdietan ere izena ematen ari gara. Ez dakit onartuko gaituzten edo ez, baina hiru jaialditan izena eman dugu jada. Prozesu hau dena amaitzean, publiko egingo dugu. Oraindik ez dakit zein bidetatik izango den eta noiz ere ez, baina ikusgai jarriko dugu.



Argazkian, iazkoan omendu zituzten odol-emaileak.

Odol-emaileen elkarteak 50 urte

Urteurren biribila ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Bide batez, 2025eko lehen odol-ematea iragarri dute: urtarrilaren 13an, Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

Mende erdiko ibilbidea osatu du Usurbilgo Odol-emaileen Elkarteak eta ospatu zein aldarrikatzera doaz. 2025. urtean sartu berrikan zenbait ekimen antolatu ditu herri eragile horrek; batetik, odol-ematea. Bi hilean behin lehen astelehenetan izaten den hitzordua ohi baino astebete geroago izango da, oraingoan. Izan ere, urtarrileko lehen astelehena hilaren 6a egokituko da.

Erakusketa bat ipiniko dute Sutegiko erakusketa aretoan
Odola emateko egun berean, 50. urtemuga honi lotutako erakusketa bat egitekoak dira Sutegin. Bi asteko iraupena izango du. Haren itxiera eguna, herriko odol-emaileak protagonista izango dituen ospakizunarekin egokituko da. Odola hainbat alditan emandako herritar talde bat eskertu eta omenduko dute, urteroko bazkariaren bueltan. Otordu hau irekia izaten da; omendu eta odol-emaileez gain, edonor joan daiteke.

Horretarako, ordea, aurrez izena eman beharko da.

Xehetasun gehiago lerrootan eta urtarrileko lehen aldizkarian:

Urtarrilak 13, astelehena: Odol-ematea Udarregin

- 16:30-20:10 Odol-ematea Udarregi ikastolako erdiko aretoan.
- Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie.
- Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.
- 50. urtemugako erakusketa-aren irekiera ekitaldia egingo dute Sutegin.

Urtarrilak 26, igandea: Bazkaria eta ekitaldia Artzabalen

- Bazkaria eta odol-emaileen-tzako oroigarrien banaketa Artzabal jatetxean.

Otordurako izena aurrez eman beharko da telefono zenbakiotako batean: 943 363 102 / 619 125 644 (Mari Jose).

Antolatzailea: Usurbilgo Odol-emaileen Elkarteak.

Hondakinen kudeaketari lotutako oharrak

Asteoi begirako hondakinen kudeaketari lotutako zenbait ohar dituzue segidan:

Errefusaren bilketa

Ontzi grisean atera beharreko hondakin zatia bi igandez behin biltzen da Usurbilen.

- Abenduaren 22an izango da aurtengoari dagokionez, errefusaren azkeneko bilketa eguna.
- Hurrengoa, urtarrilaren 5ean. 2025ean eta 2026an hondakin zati hau biltzea noiz egokituko den jakiteko, aste honetako NOAUA!rekin batera, Udalaren datozen bi urteotako bilketa egunen egutegi zehatza jasoko duzue.

Garbigune mugikorra

Atalluko Garbigunera joan ezin dutenei zerbitzu hau ger-



Garbigune mugikorra martxan izango da egunotan.

turatzea helburu duen Udalaren garbigune mugikorra Usurbilgo herri eta auzoetan ibiltzen da astez aste. Geltokiok izango ditu asteotan:

- Abenduak 19-25: Txokoalde.
- Abenduak 26-urtarrilak 1: Santuenea.
- Urtarrilak 2-8: Kalezar.
- Urtarrilak 9-15: herri erdigunea.

"Ama ta asunak" zikloa hitzaldi batekin amaituko da

Kalezarko Pelaiounean kokaturiko Emakumeon Etxean egunotan ikusgai den erakusketa-aren itxiera eta amaierako hitzaldia iragarri dute ostegunerako.

Erakusketa

- Abenduaren 19ra arte, Emakumeon Etxean: 'Ama ta asunak' erakusketa. June Baonza Pagaldai artistaren proiektuak amatasunaren ideala deserai-nahi du, amatasunaren praktika bizigarriagoa egiteko erreferente eta diskurtso ugari eskaintzearekin batera".

Hitzaldia

- Abenduak 19, osteguna. 18:00etan, Emakumeon Etxean.
- Hitzaldia: "Amatasunak, beste amatasunak eta ahaide-tasun berriak".
- Hizlariak: Elixabete Imaz eta Miren Aranguren.



'Ama ta Asunak' erakusketa Emakumeon Etxean topatuko duzue.

Urtarrilak 18, larunbata

19:00 "Hitz Esana" emanaldia, Mejillon Tigre kolektiboaren eskutik.

- Zehaztasunak: "Spoken word formatua darabilen poesia-emanaldia da Hitz Esana. Ahoz gora esateko idatzitako poesia da. Zeharkatzen gaituzten bizipenak hizpide dituen ikuskizuna: etxebizitza, sexu-indarkeria, gorpuztasuna, idoloak..."

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasurte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Andatza tabernan sukaldari bila gaitza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrik emateko. Telefono zenbakia: 647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka

zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu hona: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Telefono zenbakia: 628 459 625

BESTELAKOAK

Ibilgailurako haurrentzako bi aulki salgai (Rparo-Zero. 1 marka), 5 urte arte erabilgarriak. Egoera onean. 125 euro bakoitza. Harremanetarako: 653717186.

Zilarrezko lepoko bat eguzkilore berde batekin galdu nuen abenduaren 1ean, Usurbilgo erdigunean. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke deitzea. Harremanetarako: 625701616

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 19	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astearte, 24	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 25	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 26	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 27	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 28	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 29	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe I I Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Pilota partidak

Abenduak 20, ostirala
Usurbilgo frontoian, 17.30

Infantilak 1. Maila, eskuz banaka

- Pagazpe (M. Alejo).
- Oiarpe (Apezetxea).

Kadeteak 3. Maila, eskuz binaka

- Pagazpe (Jauregi-Indakoetxea).
- Tolosa.

Jubenilak 2. Maila, eskuz banaka

- Pagazpe (Errasti).
- Ataun (Izagirre).

Usurbil FT txapelketa

Abenduak 23, astelehena
2024ko Harane Txapelketa antolatu du Usurbil F.T.-k. Abenduaren 23an, goizeko 10:00etan hasiko da futbol lehiaketa, Haranen bertan.

Alebin mailako lehen urteko talde hauek batuko dira: Usurbil F.T., Orioko F.T., Lazkao K.E., Oreretako Touring K.E., Añorga K.K.E., Astigarragako Mundarro K.E. eta Billabona F.K.E.

Eskubaloia Oiardon

Abenduak 21, larunbata

- 10:00 Jubenil neskak:
 - Usurbil KE
 - Irauli Bosteko Juvenil
- 12:00 Senior neskak:
 - Urbil-Usurbil KE
 - Zuhegan Orio Eragin

HILDAKOAK



Paulina
Aizpurua
Iribar
Abenduaren
14an hil zen,
97 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 19

USURBIL Aztarritruk azokarako material bilketa

Abenduaren 23ko bigarren eskuko truke azokarako material bilketa.
17:30-19:30 Sutegin.

KALEZAR Emakumeon Etxea: 'Ama ta asunak' hitzaldia

Elixabete Imaz eta Miren Aranguren hizlarien eskutik.
18:00 Pelaioenean.

OSTIRALA 20

USURBIL Aztarritruk azokarako material bilketa

Abenduaren 23ko bigarren eskuko truke azokarako material bilketa.
17:30-19:30 Sutegin.

USURBIL Ziortzakoen San Tomas jaialdia

18:00-21:00 Askatasuna plazan.

LARUNBATA 21

SANTUENEA San Tomas eguneko ospakizunak

San Tomas Eguna musikaz girotua, Gorka Mendirekin.
18:30 Santuenea 12 egoitzan.

IGANDEA 22

AGINAGA 'Errio' filmaren proiektzioa eta solasaldia

Ibon Gaztañazpi eta Nagore Urdapilletaren dokumentala.
17:30 Eliza Zaharrear.



Olentzero eta Mari Domingi gure artean izango dira datorren astean.

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

Abenduak 23 astelehena**Aginagan:**

- 18:00etan, Aginagako Eliza Zaharrear.
- Zehaztasunak: "Menditik jaitsiko da Olentzero eta eliza zaharrear bukatuko du ibilbidetxo. Bertan, eskutitza emateko aukerarekin batera, gaztainak banatuko dira euskal gabon kantekin girotuz".

Abenduak 24 asteartea**Santuenean:**

- Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Santuenean.
- Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

Kalezarren eta herri erdigunean:

- 17:30 Abiatzea Kalezartik.
- 18:30 Usurbilgo plazara iritsiera.
- Zehaztasunak: "Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira galtzagorri, joaldun, adar-jole eta trikitalarien laguntzarekin. Haurrak agurtu, haien nahi eta eskaerak entzun, eta mendira itzuliko dira gauean etxe guztietara iritsi ahal izateko. Plazan, umeek Olentzero eta Mari Domingirekin argazkia ateratzeko aukera izango dute. Abenduaren 12tik aurrera postontziak jarriko dira herriko hainbat gunetan, gutunak jaso ahal izateko".
- Antolatzaileak: herritarrak, eragileak eta Udala elkarlanean.

"Gero bat gaurdanik: Elkargunea eraikitzen" jardunaldiak

Abenduak 23, astelehena

- 12:00 Usurbilgo Memoria: ibilbide gidatua (Usurbil 1936 elkarte) Mikel Laboa plazatik.
- 17:30-20:00 Aztarritruk frontoian: Aztarrikaren bigarren eskuko truke-azoka. Bilketa: abenduaren 19an eta 20an, 17:30-19:30, Sutegin.
- 18:00-20:00 Elkarguneko eragileen erakusketa irekiera Sutegiko erakustaretoan.
- 20:00 Gabonetako topaketen irekiera ekitaldia Sutegiko aterpean.

Abenduak 24, asteartea

- Goizetik, baserriar jantziekin.
- 11:00 Talogintza ikastaroa Usurbilgo talogileekin frontoian.
- 11:30-14:00 Elkarguneko eragileen erakusketa Sutegin.
- 17:00 Aztarrikant: Palestinaren aldeko kantujira frontoitik.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Gorde erosketa-tiketa.



Gabonetan

**EZ IZAN
TXORIBURU**

Kontsumitu buruarekin
Eta zalantzarik baduzu,

kontsumobide.eus



#KontsumitzenJakIn



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

HIPODROMO KALEA BEHEA 10, LASARTE ORIA

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA BAIMENDUA

iruarkaitz@hotmail.com

630 90 02 79 AGINAGA



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.aroztgi.net jr.ibargoien@hotmail.com

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiiturgintza.com - www.inakiiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com



ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigalak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39